

Beraz, Beñat Etxeparek 1545. urtean esan zuen bezala, "Euskara, jalgi hadi plazara!" Poeta zaharraren hitzak praktikan jartzeko, hona hemen ideia batzuk euskara euskaltegitik kanpo erabiltzeko eta, bide batez, zure ikasprozesuan aurrera egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean.

JALGI HADI PLAZARA!

Internet aprobetxatuta...

Euskara **ikasteko IKAREN aplikazioak**. Hona hemen gure euskaltegiak argitaratutako app-en zerrenda. Aukeratu gehien gustatu zaizkizun 3 aplikazioak eta gomendatu zure ikaskideei.

- ✓ IKAPP [zalantzak](#). Ohiko zalantzak argitu eta zure euskara-maila hobetzen lagunduko dizu.
- ✓ IKAPP [zenbakiak](#). Zenbakiak euskaraz ondo idazten ikasiko duzu.
- ✓ IKAPP [ortografia](#). Euskarazko ortografia lantzen ari bazara, aplikazio egokia duzu hau.
- ✓ IKAPP [deklinabidea](#). Euskarazko deklinabidea ikasten ari bazara, aplikazio egokia duzu hau.
- ✓ IKAPP [askodakit](#). Euskararen inguruko ezagutza proban jartzeko.
- ✓ IKAPP [leku izenak](#). Euskal Herriko eta munduko leku-izenen ortografia eta kokapena lantzeko aplikazioa.
- ✓ IKAPP [zaharrak berri](#). Jolas hau ezin hobea da gure esaera eta esamoldeak sakonago ezagutzeko eta ikasteko.
- ✓ IKAPP [Araban](#). Araba hobeto ezagutzen lagunduko dizu.

Euskara **ikasteko** aplikazioak.

- ✓ Sar zaitetz www.euskalapps.net edo www.ikastek.net webgunean, aukeratu gehien gustatu zaizkizun 3 aplikazioak eta gomendatu zure ikaskideei. Baietz aplikazio horiei esker zuen euskarari bultzadatxoa eman!

Euskara **ikasteko** webguneak.

- ✓ Erabili al duzu inoiz www.ikasbil.eus? Sartu webgunean, ikertu eta eman ikaskideei ikerketa horren berri.

Euskara **praktikatzeko** webguneak.

- ✓ Euskara praktikatu eta beste ikasle batzuk ezagutu nahi? Sar zaitetz www.mintzanet.net edota www.mintzalaguna.eus webguneetan, haien inguruko informazioa bildu eta kontatu ikaskideei. Baietz baten bat izena ematera animatu!

Zure ingurua aprobetxatuta...

- ✓ Ziur inguruan **euskaraz aritzeko aukera bat baino gehiago** daukazula. Hona hemen zenbait ideia:
 - Taberna batean, edatekoa euskaraz eskatu.
 - Jatetxe batean, menua euskaraz eskatu.
 - Erosketa-zerrenda euskaraz idatzi.
 - Arropa- edo janari-denda batean zerbait erosi.
 - Erakundeetan (gizarte-etxeetan, udalean, liburutegian...) informazio labur eta zehatza eskatu: ikastaro baten ordutegia, zer egunetan den, prezioa...
 - Medikuarenean, zita euskaraz eskatu.
 - Kutxazain automatikoetako eragiketak euskaraz egin.
 - Ikaskideei eta euskaraz dakitenei whatsapp-eta euskaraz idatzi.

Idea horietakoren edo bestelakoren **bat/batzuk praktikara eraman eta kontatu ikaskideei nolako esperientzia izan den**: nola sentitu zaren, zaila ala erraza izan den, mintzakideek lagundu dizuten...